

Yolanda Arrieta eta Leire Urbeltz
GERO-Euskal Liburuak. 2009

Amarunen alamandrea Yolanda Arrietak eta Leire Urbeltzek egin dute, elkarrekin.

Yolandak hitza jarri du eta Leirek irudia, baina ezin da esan zer izan zen lehena, ideia ala marrazkia, ipuina ala ilustrazioa.

Yolanda Arrietak haurrentzat, gazteentzat nahiz helduentzat idazten du, aspaldidanik. Leire Urbeltzek Arte Ederrak egin ditu eta orain Bartzelonako EINA eskolan dabil *Ilustrazio sortzailea* ikasten.

Yolandak hitza eta urteen eskarmentua eskaini dizkio Leireri. Leirek, berriz, gaztetasuna eta emozioak irudikatzeko modua Yolandari.

Kontua da elkarrekin aritu direla, biak ala biak, elkarrengandik ikasten.

Eta kontua da elkarrekin aurkezten dutela emaitza ere, zuretzat, zuzen-zuzenean; zuretzat, irakurle.

Amarunen alamandrea, lan bakarra, bi sortzaile.

IRAKURLEAREN ADINA. 9 -11 urte. Aurretik ere irakur daiteke, bakarrik ala familian, baina uste dugu aipaturiko adina oso egokia dela ipuin honentzat, hain justu, orduantxe hasten direlako umeak bakarrik ibiltzen kanean, orduantxe hasten direlako gurasoengandik askatzen eta euren burua agertzen besteekin eta besteen aurrean, gizartean. Askotan euren barruarekin bat datozen jokabide eta rola hartzen dituzte, baina beste askotan komunikabideen eraginez garaiko edo modako izendatuak aukeratzen dituzte, erakargarriagoak direlako. Eta, horrexegatik pentsatzen dugu adin hori, pubertarorako atea izanik, aproposa izan daitekeela bestelako ereduak agertzeko.

GAIA. Sorkuntza. Gu biok sortzaileak izanik, nola, zergatik, zertarako eta norentzat sortzen dugun, nork laguntzen digun eta zer lortzen dugun bide horretan.

MEZUA. Bizitza bera, etenik gabeko sorkuntza, eraikuntza, asmakuntza, birsortze eta jaiotza gisa. Hondakinetik ere sor daiteke. Dena asma daiteke behin eta berriro, gauza ederrak egin ditzakegulako berez besteentzat dagoeneko baliagarri ez diren gauzetatik abiatuta, beti ere horretan sinestuz gero. Horretarako daude AMANDREAK, geure barneko alde eraikitzailearen isla direnak, zeinek Edertasuna maitatzeko eta gauzatzeko indarra ematen diguten. Hala bada, geure barnean legoke Edertasun hori eta sortzea berori kanporatzea litzateke, horretarako geure indarra eta geure eskuak erabiliz. Guretzat, gauzatze horretan legokeelako benetako errealizazioa, ez datorrena beti bat gizarteak saltzen edo erakusten digunarekin.